

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresak, bezeroarekin oso harreman estua izatea nahi dugu. Guretzako, bezeroa da garrantzitsuena eta gurekin konfidantza osoa izatea nahi dugu. Arazo bat badauka gure enpresarekin, guri berehala komunikatzea nahi dugu, ahalik eta erosoan egoteko. Gure kasuan, enpresaren eta bezeroaren artean egongo litzatekeen harreman mota laguntza pertsonalekoa eta laguntza pertsonal eskainikoa izango litzateke, hau da bezeroaren integrazio soziala lortzea eta baita ezagutza oso bat izatea. Aurrez-aurreko harremanaz baliatuko gara, izan ere, nahitaezkoa izango zaigu bezeroen konfidantza eta ardura gureganatzea. Gure harremana bezeroekin entzute aktiboan, enpatian eta hurbiltasunan oinarrituko da, guretzat oso garrantzitsuak diren faktoreak dira eta.

Bezeroaren nahi eta beharretara moldatuko gara eta gure helburua bezeroek gure langileengan eta haien kideengan konfiantza izatera heltzea da, klaseak sakonagoak eta lagungarriagoak izan daitezen.

Bezeroak mantentzeko eta ez galtzeko, hilabetero behin txangoak antolatuko ditugu, horrela haien interesa mantentzeko eta jarraitzeko gogoak dituztela ziurtatzeko. Mendira joango gara, han gogoia freskatzeko eta naturarekiko elkartasuna sentiarazteko gure bezeroei.